

# « Aurrez aurre ! »

maritzuli.konpainia@orange.fr  
http://maritzuli.eke.org

**Zuzendaritza artistikoa :**

*Claude Iruretagoyena*

**Koreografoak:**

*Claude Iruretagoyena  
Christine Grimaldi  
Jon Iruretagoyena  
Celine Dupérou*

**Laguntzaile artistikoa, teknikoa :**

*Malandain - Ballet Biarritz  
Juan Antonio Urbeltz*

**Dantza Maixuak :**

*Jon Iruretagoyena  
Céline Duperou  
Oscar Lucas Gaiza  
Amaia Ausan Arretxe*

**Dantzariak:**

*Compagnie Maritzuli Konpainia  
Eraiki Dantza Taldea Behobia*

**Musika zuzendaritza :**

*Claude Iruretagoyena  
Jon Iruretagoyena*

**Musikariak:**

*Aiko taldea - Bilbao  
Boreas camara—Gasteiz  
J. Antonio San Miguel*

**Jantziteria:**

*Claude Iruretagoyena  
Nicole Rio (Direction atelier)  
« Les petites mains »*

**Accessoires :**


*Annie Onchalo*

**Soinuztaketa:**

*Didier Teillagorry*

**Argiztaketa:**

*ATG – Roger Hirigoyen*



MARITZULI KONPAINIA – ERAIKI DANTZA TALDEA – AIKO TALDEA

Dantza - Dance - Tanz - Dança - iantza  
**Aurrez aurre...**  
Face à face...

CLAUDE ETA JON IRURETAGOYENA



**Bergara**

2011-ko martxoaren 6 an  
Aratsaldeko Zetan



*B*eti horrela ikusten ez den arren, dantza tradizionala Europako herrien ondareko kultura funtsik interesgarrietakoa da eta, ondorioz, baita gure herriarena ere. Eta hain fenomeno garrantzitsuaren bizipenak beti kontzienteak ez badira ere, iraganeko herri dantzek Dantzaren Historiaren ohiko eskemei erantzuten diete, eta behar beste jaramonik egiten ez zaienean, hedapen, inguru eta sakonean aztertzea eragozten da. Nahiz eta gai horri buruz gauza handirik ez dakigun, aurreko mendeetan Europako gizarte aristokratikoak dibertitu zituzten dantza enblematiko asko, besteak beste, pavana, branle, gallarda, saltarello edo kontradantza, gehiago edo gutxiago, gaur arte indarrean iraun duten koreografia folkloriko zoragarrietan islatzen dira.

*Bidearen metaforapean, andro drom erromanikoz, MARITZULI konpainiak proposamen koreografiko berriak egitera ausartzen da, ikusleak jauziak eta mazurka bezalako dantza pareen bidez magikoki oroitzen dira iraganarekin; pavana eta kaskarot-martxa, jauziak berriro, oraingoan branleekin; fandangoak eta jotak gallardekin, eta abar. Inautea, aratustea, zalditxoa arimaren zelabere gisa, hartz dantzaria, maskaren landa jaietako gonbidatu berezia eta aldaezina; dantza "irekiak" edo "itxiak", Curt Sach-en sailkapen kezka eta ohar zaharren arabera, keinuaren azalekotasun hutsean galdu gabe dantzan zehar dabilzanentzat unibertso osoa oroituz.*

*Mugimenduaren abstrakzioa, ordenatu behar diren metafozez beteriko hizkuntza, eduki gramatikaletan aztertu beharrekoa, zentzuaren eta edukiaren sorkuntza hutsaletan galduko ez bagara. Norabide horretan esfortzurik egin ezean nekez eutsiko diogu ondareari, eta are nekezago gaurko euskaldunok heredatu duguna bezain oparoa bada.*

*MARITZULI konpainiako eta Meatzaldeko Harrigorriako kideak hemen, gure Euskal Herrian, gure dantza tradizionalen edukia zorrozki eta sentibera aztertzen duten bakanen artean daude, zeharo harrigarriak diren proposamenak eszenaratzeko arriskua hartuta: dantzarien bertutean, beti bikain antzeztokiaren gainean, zein jantzi eta koreografiaren xehetasun zoragarrietan. Gau, bizi garen munduan, ordainezina da BIDARTEko talde honen ahalegina, gure jende guztiak euskal kultura ondarearen hain atal garrantzitsu hori sentituko badu. Nire miresmen eta errespeturik handienarekin, onena opa eta iragartzen diet.*

*Juan A. Urbeltz - Donostia, 1.03.2009.*

## Paperezko iantzak

*Jose Antonio San Miguelek eta d'en ensemble Roreas Camarak XVIII. Mendeko txartel joko batean jasotako soinuei buruz egindako lanei esker, "paperezko iantzak" borroka moduak, biribileko antzinako dantzetatik gaurko kontradantzetaraino, parez pare jartzea litzateke.*

*Italiako pizkundeko dantza moduekiko trukeetatik eta Christine Grimaldik egindako lan eskeretatik elikatuta, gure historiari berari begiratuz apaindutako aurrez aurreko horiek agerian utziko dute euskal dantzen eta Italiako pizkundeko dantzen artean nolabaiteko kidetasuna dagoela, ezinezko iritziko diogun arren.*

*Azkeneko mendeetan Europako gizarte aristokratikoak dibertitu zituzten dantza enblematiko asko, besteak beste, pavana, branle, gallarda, saltarello edo kontradantza, gehiago edo gutxiago, gaur arte indarrean iraun duten koreografia folkloriko zoragarrietan islatzen dira.*

*Izan ere, aitortu behar dira, besteak beste, barrokoaren aurreko idazketa koreografikoaren eta euskal dantzarien direktorioaren arteko antzekotasun harrigarriak. Inork ezingo luke esan Herni IV Frantzia eta Nafarroako erregearen epaimahaira Medicien bidez sartutako artista italiarrek eragingo zituzten ala ez.*

## Ando drom – errepidearen gainean...

*Hizkuntza erromanikoan dagoen bidearen irudiari esker, Erregelak, Ingurutxoak bezalako kate-dantza enblematikoetatik eta jaiaren une horrek artikulatu dituen esku dantza dibertigarrietatik, zatiketa eta desafioetatik abiatuta artikulatu da jaiaren une hau. Aldi berean, bi belaunaldiren artean kokatu den dualtasunean serio, etengabeko eskaladen joko batean jaitu, desafioak euskaldunek beti eman dizkieten forma eta esanahi guztia hartzen ditu hemen, benetakoa baina, era berean, iragankorra. Ez dago garailerik halako konfrontazioetan. Desafioa orainean bizi da, eta une horretan oso bizi, baina berehala ez da "ezer" geratuko. Erritmo eta koloretan hain biziak diren une horien kontrara, emakumeek kantatutako dantzak melodia mintsuekin zirrara sakonaren denbora eta espazioa beteko dituzte. Inguramendu tradizionaletik bere borondatez ateratzen den direktorioaz ballatuta, errepideko jende hori bezala aritzen gara, kultura jakin bateko estilo baten aingeru zaintzaile zorrotzen estiloan, eta "txartelen aztoratzaileak" bezala ere, gure bidearen epaimahaietan metatutako tradizio ugariari esker.*

## Branletik jautziak - « *Les danses du branle...* »

Maskaradaren funtsezko zatia heriotzatik bizitzara igarotzeko errituala da (ziklo berria), baino mugimendua batzuk desagertu ziren edo guretzeko ulergaitzak dira, baino argi dago sinboloz beteriko dantzak direla. Antzinako testuak interpretatzea eta antzeko inauteri ohiturak aztertzea oraindik zaila eta delikatu den arren, "lizentzi koreografiko" bat eskainiko diogu geure buruari, pertsonaien eginkizun eta jantzien inguruko behaketa bat egiteko; historian eta Jon Iruretagoyenak egindako ikerketetan oinarrituz.

Maskarada aztertzean ohartzen gara XIX. mendearen amaiera aldera, aldaketa handiak jasan zituela, tradizio militarren ondoriozko errepertorio tekniko berria sartzerakoan.

Jantzi handizale eta ñabarrez jantzita eta gandor itxurako burukoarekin agertzen zaizkigu Kukuileroak (oilar gazte); eta hauen makil dantzekin jaiari hasiera eman-go diote. Hauek dantzari gazteak direnez, maskaradetan ikasle izango ditugu y antzinako idatzien esanetan, Maka Beltza erditzen sorotsiko dute, eta baita Zamaltzaina bere eginkizunetan lagundu ere. Erditzeen erritual hau inauterien abiapuntu bilakatzen zaigu.


Zamaltzain eta Txerreroaren antzinako irudikapen hauetan, Odin Erregearen, Ellequinen eta Arthur Erregearen kondairak antzeman ditzakegu; heriotzaren eta arima alderraien mitoa erabat ordezkaturik daudelarik.

Bi pertsonaiak herren ageri dira eta hauek ferratu eta esku-ahurraren lerroen irakurketaren ondoren (askapenaren ikurra); "heriotzari loturiko neguko denboraldia" aldentzen dute. Hildakoen arimak lurretik "jainkoen esparrurantz" kanporatzearen mitoa da.

Une horretan soilik ageri den Entsenariak gidatuta, mugimenduak sortzen duten biribil handiak herriaren beraren irudiari eta dimentsioei erreparatzen die. Ziklo bakoitzean, pertsona helduek gazteei utzitako lekua bi belaunaldiak dantzatutako gabotan adierazten da.

Irendura, "Godalet dantza" ospetsuaren hasiera gisa ageri zaigu. Branlearen, mugimenduaren erdigunetik sortuko dira etorkizuneko aldaketetan gaur egun ezagutzen ditugun koreografia "bakarlariak".

Gaur egun oraindik ikusteko aukera daukagun maskaradei dagokienez, eta antzezpen horien hasierako zentzun sakanari erantzunez, txantxa gisa sortuko dira, perzkinen eta hartzen arteko aurrez aurrekoetatik.



**Hainbat urteko lanaren ostean, Biarritzeko Maritzuli Konpainiak Thierry Malandain Biarritzeko Balet Nazionalako Zentro Koreografikoan duen egoitza iraunkorrean, aurki "Aurrez aurre" ikuskizuna aurkeztuko du.**

## **“Aurrez aurre !...”**

*Kulturalki, ohituren bitartez, ikusten da euskaldunok beti izan gara jende erronka eta festazaleak.*

*Bertsolaritza, pelota eta dantzarekin, besteak beste, norgehiagoka horiek garbi agertzen dira.*

*Euskaldunek beti izan dute gogokoa dantza. Gorputzarekin trebezia adieraztea baino zerbait gehiago da. Dantzaria bere burua gainditzeaz gain, besteekin ere neurtzen baita.*

*Berpizkunde garaitik hasita, norgehiagoka horiek ikuskizun harrigarri bezain iragankorrak izan dira.*

*Idea hori jarraituz, Aurrez-aurre ikuskizunak ez ditu dantzariak soilik erakusten, baita gure ihauterietako aberastasunetatik ateratako dantzak ere. Momentu egokia da belaunaldi ezberdinetako dantzariak elkartzeko eta estilo ezberdineko dantzak lotzeko. Bestalde berdintasunak nabarmenak dira, Euskal Herriko eta aurre-baroko garaieko dantzen artean. Ezin da jakin, Frantzia eta Nafarroako erregea izan zen Henri IV. gortean Medicis familiaren bitartez sartu ziren artista italiarrei esker izan den...*

*Aurrez-aurre ikuskizunaren alde originala hautatutako gaiak euskal dantza tradizionalari leku handia uzten diola da. Hala eta guztiz ere erabilitako errepertorioek norgehiagoka horiek buruz-buru lantzen dituzte, ikuskizun hau ez dadin dantza folkloriko merkean erori, gure ondare kultural handiaren beste ikuspegi bat ematen du.*

**Claude Iruretagoyena**

# «Aurrez aurre!»

Claude Iruretagoyena  
Jon Iruretagoyena

## Aurkezpena :

*Santa luzia*

## “Ihaute” :

*Martxa /Makil Ttiki (hiru xito)*

*“Ithuraldeko liliak”*

*Maska dantza*

*Azkaindarrak*

*Segidak*

*Mazurka-bidaldi*

## “Branletik jautziak” :

*Arribada*

*Bralea*

*Hartzen almute dantza- « bikuntza »*

## “Paperezko iantzak” :

*Pavana/Branlea*

*Pavana*

*Gaillarda/Fandango*

*Paperezko iantzak*

*Quadrilles-biotzaren ukaldia*

## “Ando drom” :

*Orhiko xoria*

*Atzo goizean*

*Ingurutxo/Soka dantza « alapidea »*

*Esku dantzak*

*Zortziko berri- iremiñe*



## Ihaute

*“Santa Luziatik, egunak arkakuso jauzia beste hazten dira”*

*“Santa Luzia abenduaren 13an ospatzen da, eta egunak segitzen du laburtzen, egunetik egunera, urtero-urtero abenduaren 21ean, egun bat gorabehera, izaten den neguko solstiziora arte”.*

*Baina egunaren iraupena hain apurka laburtzearekin batera “bernetako eguerdia” egunero atzeratzearekin lotzen da; horrela abenduaren 13aren aldera (Santa Luzia) eguzkia sartzeko batez besteko ordua minimoa da. Arratsaldeak astiro-astiro luzatzen hasten dira eta goizak, berriz, laburtzen.*

*Esaera zahar simple horrekin, eta eguneko lehenengo argiaren izu-ikaren irudiarekin sinbolikoki gauzatuko dugu ikuskizuna, eta argiztatzeko erabiliko dugu.*

*Santa Luzia eguna argiaren lehenengo egun gisa ageri zaigu solstizioaren jaiak ospatu aurretik, eta ondoren Gabonak (eguberri-eguzki berri), eta abar.*

*Beldurra sortzen duen heriotzarekin loturiko neguaren garaiaren ostean, horra hor pizkundera, inauteriak. Dantzarien taldeak, maskarada taldeak, zirtzilak herrietan zehar, herriz herri, ateratzen dira neguan gelditutako denbora berreskuratzeko. Denbora iraultzeko garaia da.*

*Antzinako ospakizun horien aurrean, betiko ohiturek euren bidetik segitzen dute, horregatik, adibidez, gaur hirietako inauterietan aurkitzen ditugun gizonen emakume-mozorroen sistema osoa “a retrocede pelo” jai ohitura horren jarraipena besterik ez dela diogu batzuek.*

*Mazurkak, polkak, scottish bezalako dantza berrien ekarpenaren mehatxupean, “dantza jauziak- euskal jauziak” osatzen dituzten dantzen funtsa zaharra, oso presente dago poztasun sasoi horietan.*

